

## **ZUMARRAGA / 'Bebeteka' da guztien artean arrakasta gehien izan duen zerbitzua**

**Gaur arratsaldean sei urtetik gorako haurrek txotxongiloak egiteko aukera izango dute Zelai Ariztikoliburutegian egingo duten tailer berezian.**

Miraim Luki

Txotxongiloak egiten ikasteko tailerra izango da gaur Zumarragako liburutegian 17:30etik 18:30era. Sei eta hamabi urte bitarteko haurrei zuzendutako jarduera da, eta irakurketa sustatzea du helburu. Aurten, lehenengoz, urte osorako jardueren egutegia osatu dute Zelai Ariztikoliburutegian. Irene Gonzalez (Zumarraga, 1971) da arduraduna, historialaria da eta bederatzi urte daramatza Zumarragako liburutegian lanean. Liburutegi berria da beharbada urte horietako aldaketarik nabarmenena. Herritarren irakurketa ohituren lekuko ere bada. Txotxongiloak egitea eta irakurketa nola lotuko dute gaurkoan?

Marionetak egingo dituzte, eta ondoren bikoteka euren txotxongiloekin antzerkia egin beharko dute, ipuin bat sortu beraz.

### **Liburutegi berrian 'bebeteka' izeneko espazioa sortu duzue. Nola ari da funtzionatzen?**

Bi espazio desberdintzeko aukera izateak abantaila asko ekarri dizkigu. Esango nuke bebeteka dela liburutegi berriak eskaintzen dituen espazioen artean arrakasta gehien izan duena. Egunero haur asko etortzen dira gurasoekin edo zaintzaileekin, batez ere arratsaldean.

### **Liburutegiko arauak, isiltasuna eta abar, azkar ikasten al dituzte?**

Oinarrizko arau batzuk badaude. Hogei minutu baino gehiago ez egotea gomendatzen dugu haur txikien kasuan. Garrantzitsua da gogoan izatea liburutegia ez dela jolas-parkea. Askotan helduak dira, gurasoak, isiltasunaren araua betetzen ez dutenak; euren umeak liburuak ikusten ari diren bitartean gurasoak hitz egiten jarduten dute.

### **Zinemaren eta musikaren guneak ere badaude. Zer nolako erantzuna izan dute zerbitzu horiek?**

Jende askok zoriondu gaitu liburutegian dauzkagun filmengatik, zinema klasikoa eta independentea gehiena. Filmen funtsa aberasten lagundu digute Butak21 zineklub taldekoek, beraiek emandako film klasiko guztiak utzi dizkigute eta. Musikak ez dauka horrenbesteko arrakastarik, agian internet bidez musika asko eta anitza lor daitekeelako.

### **Ikasle asko joaten al da liburutegira ikastera?**

Liburutegi berrira aurrekora baino ikasle gehiago etortzen da. Horretan lagundu digu haurren eta helduen espazioak banatu ahal izateak. Gainera, liburutegiko ikasteko gunean dagoen argiak ere laguntzen du.

### **Oro har, zer eman dizue liburutegi berriak?**

Lan egiteko toki erosoagoa da, liburutegiko funtsak antolatzeke espazio handiagoa dugu, eta espazio bat baino gehiago izateko aukera ere bai. Zerbitzu kultural bat eskaintzeko dagoen liburutegiak dagokion tokia duela ikustea, txukuna eta fundamentuzkoa, niretzeko poz handia da.

**Zenbat liburu, CD edo film ateratzen dira batz best egunean?**

Ehun bat.

**Eta zer da jendeak gehien irakurtzen duena?**

Gehienak best seller-ak dira. Une honetan, adibidez, Pijama marradunaz jantzitako mutikoa dago zerrendaren lehenengo postuan. Haurren kasuan euskarazko liburuak hartzen dituzte gehien; Txominen bilduma punta-puntan dago.

**Jendeak irakurtzen duela uste al duzu?**

Nik esango nuke orokorrean jendeak ez duela irakurtzen. Baina irakurtzen dutenek asko irakurtzen dutela ere esan behar da.

**Zein da zure lanean gehien gogobetetzen zaituen unea?**

14-15 urteko gaztetxoak etorri eta liburu batekin ateratzen direnean. Irakurtzeko adin zaila da hori.